

## INFORMAZIO OHARRA

### **Ihobe eta Eusko Ikaskuntzak bat egiten dute Trantsizio Ekologikorako bidean**

*Ihobe - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa atxikita dagoena Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari, eta Eusko Ikaskuntza elkarlanean ari dira Trantsizio Ekologikorako Etorkizunen Diseinua programa antolatzeko. Programa hori maiatzaren 27tik uztailaren 15era bitartean egingo da, zazpi webinar saioen bidez.*

**Donostia, 2020ko ekainak 12.** Bi erakundeek interesa dute ingurumen-politika garatzeko eta ingurumen-jasangarritasunaren kultura euskal komunitatean hedatzeko. Ildo horretan aurrera egiteko, *Trantsizio Ekologikorako Etorkizunen Diseinua* ikasteko programa irekita dago erronka horrekin konprometituta dauden hiritarrentzat. Edukiak natura-ingurunearekin bat egin eta datozen belaunaldiekiko solidarioagoak diren bizimoduak prestatzera eta praktikan jartzera bideratuta daude.

"Ekozentrikoa ni?" izena duen zikloaren lehen zatian, maiatzaren 27tik ekainaren 10era, hiru hitzaldi eman dira. Elena Moreno Zaldibarrek (Eusko Jaurlaritzako) eta Mikel González-Eguinok (BC3-Basque Centre for Climate Change) *Nola atera krisi honetatik? Mundu iraunkorrago baterantz solasaldia* izan zuten. *Larrialdi klimatikoa: Orain inoiz baino beharrezkoagoa* izan zen Isabel Elizalde Arretxeak eta Aitor Zuluetak (Eusko Jaurlaritzako) jorratu zuten gaia. Arantza Achak (UNESCO Etxea) eta Alex Fernandez Muerzak gizarteak trantsizio ekologikoan izan duen lekua aztertu zuten ondoren. Hiru saioek parte-hartze maila ona izan zuten, eta eztabaida sutsuak eragin zituzten.

Ekainaren 17tik uztailaren 15era egingo da bigarren zatia, lau saiotan egituratuta. Aurkezpenak eta tailer parte-hartzaileak tartekatuta, etorkizuneko mapak eta prospektiba teknikak erabiliz, epe ertaineko ingurumen agertokiak diseinatu eta joera nagusiak aztertuko dira. Programa hurrengo hau izango da:

- . Ekainak 17: *Aurkezpena eta Ikaskuntzako Bitakora: Antropozenoa esploratu*
- . Uztailak 1: *Oraina diseinatzea: pertzepzioak, agertokiak eta narrazioak*



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez



Herri-baltzua  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

. Uztailak 8: *Etorkizun probableak diseinatzea: eta ez badugu ezer egiten? Ezer ez egitearen inpaktuak*

. Uztailak 15 : *Etorkizun hobeak diseinatzea: eta gure bizimodua aldatzen badugu? Trantsizioaren eraginak*

*Trantsizio Ekologikorako Etorkizunen Diseinua* programaren bigarren faserako izen-emateak [www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) helbide elektronikoan egin daitezke. Parte hartzea doakoa da eta leku mugatuak izango dira tailerretan.

Informazio gehiago / Más información  
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus  
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)



## NOTA INFORMATIVA

# Ihobe y Eusko Ikaskuntza unen fuerzas hacia la Transición Ecológica

*Ihobe – Sociedad Pública de Gestión Ambiental adscrita al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, y Eusko Ikaskuntza colaboran en la organización del programa Diseño de futuros para la Transición Ecológica, que se celebra del 27 de mayo al 15 de julio por medio de siete sesiones webinar.*

**Donostia-San Sebastián, 12 de junio de 2020.** Ambas instituciones comparten interés por el desarrollo de la política ambiental y la extensión de la cultura de la sostenibilidad ambiental en la comunidad vasca. Para avanzar en esta dirección, el programa de aprendizaje *Diseño de futuros para la Transición Ecológica* está abierto a la ciudadanía comprometida con este reto. Sus contenidos se orientan a la formación y puesta en práctica de formas de vida más conformes con el medio natural y más solidarias con las generaciones venideras.

En la primera parte del ciclo que han bautizado como “¿Ecocéntrico/a, yo?”, del 27 de mayo al 10 de junio, se impartieron tres conferencias. Elena Moreno Zaldibar (Gobierno Vasco) y Mikel González-Eguino (BC3-Basque Centre for Climate Change) disertaron sobre *¿Cómo salir de esta crisis? Hacia un mundo más sostenible. Larrialdi klimatikoa: orain inoiz baino beharrezkoa* fue el tema abordado por Isabel Elizalde Arretxea y Aitor Zulueta (Gobierno Vasco). Mientras que Arantza Acha (UNESCO Etxea) y Alex Fernández Muerza analizaron el papel de la sociedad en la Transición Ecológica. Las tres sesiones contaron con un buen nivel de participación y dieron motivo a animados debates.

Del 17 de junio al 15 de julio va a tener lugar el segundo módulo estructurado en cuatro sesiones. Combinando las exposiciones y los talleres participativos, mediante mapas de futuros y técnicas de prospectiva, se diseñarán escenarios medioambientales a medio plazo y se explorarán las principales tendencias. Su programa será el siguiente:

- . 17 de junio: *Presentación y Bitácora de Aprendizaje: explorando el Antropoceno*
- . 1 de julio: *Diseñando el presente: percepciones, escenarios y narrativas*



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez



Herri-baltzua  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

. 8 de julio: *Diseñando futuros probables: ¿Y si no hacemos nada?*  
*Impactos de la inacción*

. 15 de julio: *Diseñando futuros preferibles: ¿Y si cambiamos nuestro  
modo de vida? Impactos de la transición*

Las inscripciones para la segunda fase del programa *Diseño de futuros para la Transición Ecológica* son gratuitas y con aforo limitado, y pueden hacerse en la dirección electrónica en [www.eusko-ikaskuntza.eus/](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/).

Informazio gehiago / Más información  
komunikazioa@eusko-ikaskuntza.eus  
+34 618.18.49.49 (Leire Gaceo)

